

Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak %0,6 gehitu ziren hiruhileko artean 2015eko bigarren hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoaren aldean erregaiei (%3,4) eta gainerako produktuen (%0,2) salmentak gehitu egin dira; elikagaietan jaitsiera (%-0,5)

Eustaten datuen arabera, 2015eko bigarren hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmenta nominalak %0,6 gehitu ziren, aurreko hiruhilekoaren aldean urtaro eraginik gabe.

Txikizkako salmentak %0,5 nominala jaitsi ziren urte artean 2015eko bigarren hiruhilekoan, lan-egutegiko termino homogeneoetan. Prezioen eraginik gabe, salmentak %0,5 gehitu ziren termino finkoetan.

1. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhileko arteko aldakuntza-tasa. II/2015

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	-0,5	0,6	0,5	-0,2
Araba/Álava	-0,6	0,2	1,5	-0,1
Bizkaia	-1,1	0,2	-0,4	-0,6
Gipuzkoa	0,4	1,3	1,3	0,3
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Elikagaiak	-1,1	-0,5	-1,9	-0,8
Elikagaietan espezializatuta	-1,5	-0,1	-3,1	-1,1
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	-0,8	-0,9	-1,1	-1,2
Beste produktuak	1,4	0,2	1,8	-0,2
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	1,5	1,8	1,3	0,5
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	3,1	-0,1	4,5	0,9
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	0,9	1,1	1,3	-0,1
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	-1,4	0,1	-1,0	0,5
Automoziorako erregaia	-6,2	3,4	2,6	2,8
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	0,3	-0,1	0,2	-0,5
ENPLEGU INDIZEA				
Euskal AE	-0,3	-0,3		

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak.

Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIt)

Elikagaien salmenta nominalak %1,1 gutxitu ziren 2015eko bigarren hiruhilekoan urte artean; Gainerako produktuetan %1,4 gehitu eta Automobilgintzarako erregaian %6,2 gutxitu.

Elikagaien txikizkako merkataritzan espezializatua %1,5 jaitsi zen eta elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %0,8. Gainerako produktuetan Etxeko ekipamenduan espezializatuan %3,1 gehitu, Pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %1,5; Kontsumoko beste ondasunetan espezializatuan %0,9; Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %-1,4.


2015eko bigarren hiruhilekoan txikizkako sektoreko salmenta nominalak %1,1 murriztu dira Bizkaian urte artean eta Araban %0,6; Gipuzkoan %0,4 gehitu.

Prezioen eraginik gabe, txikizkako merkataritzaren salmentak %0,5 gehitu ziren bigarren hiruhilekoan urte artean

Txikizkako salmentek -gasolindegia sartu gabe- %0,2ko gehikuntza izan zuten 2014ko bigarren hiruhilekoaren aldean, termino finkoetan.

Elikagaien txikizkakoan jaitsiera erreala, %1,9; Gainerako produktuetan %1,8 gehitu, 2014ko hiruhileko beraren aldean; Automobilgintzarako erregai-salmentetan %2,6ko igoera prezio finkoetan.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%). Prezio finkoak



Elikagaien txikizkakoan, urte artean %-3,1 dugu espezializatuan termino errealean; elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %-1,1. Gainerako produktuetan Pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %1,3 gehitu eta Etxeko ekipamenduan %4,5; Kontsumoko beste ondasunetan espezializatuan %1,3; Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %-1,0.

Prezio finkoetan eta urte artean: Bizkaian %-0,4; Araban %+1,5; Gipuzkoan %+1,3.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmenta errealetan %0,2ko jaitsiera dago aurreko hiruhilekoaren aldean eta urtaro-eraginak kenduta.

Euskal AE osoan, 2015eko lehen hiruhilekoaren aldean, merkataritzako sektorean landunen kopurua %0,3 murriztu da 2015eko bigarren hiruhilekoan.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen (BMIt) gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen (BMIt) gaineko datu-bankua